

Gasteizen Arabako Foru Diputazioaren Jauregian, arratsaldeko lauretan egin du Euskaltzaindiak hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, L. Michelena, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavalala euskaltzain jaunak. J. A. Arana, I. Baztarrika, P. Charritton, X. Garmendia, P. Goenaga, J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, M. M.^a Ruiz Urrestarazu, eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

A. Irigaray, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal euskaltzain osoek, eta aita Jorge Erriezuko euskaltzain ohorezkoak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azken batzarreko agiria onartu da.

Goizeko bilkuren berri

Hiztegi berezien arazoa aztertu eta Irakaslego batzordeari erantzuna emateko egitekoak diren jardunak, datorren Abenduaren 28 eta 29an egingo dira Hondarribian.

IKER I, Leioako Jardunaldien liburua, gaur arratsaldeko seietan Gasteizen aurkeztuko da. Abenduaren 4ean, Madrilen eta ondoko hamaikan, Barzelonan egingo da aurkezpen bera.

Euskararen ahozkatze eta azentuaz kezka larria agertu dute batzartuek. Gaur eguneko komunikabideek hizkuntzaren etorkizunari buruz duten garrantzia kontuan izanik, zerbait esan behar luke Euskaltzaindiak, gaizki dagoena adieraziz, besterik ez bada ere. Iker lanerako jardunen premia ikusi da.

Argitalpenak. **Euskera** aldizkaria egun hauetako batez agertzekoa omen da. Lehen urteetako ale agortuak birrargaratzeari buruz eskaintza bi jaso dira eta, baldintza guztiak ikusi ondoan, SENDOA Argitaletxearen esku uztea erabaki da. J. San Martin arduratuko da horren jarraipenaz.

IKER 2 liburuaren asmoak agertu dira. Euskaltzaindiak Lafitte euskaltzainkideari egiten dion omenaldia izan nahi du. Batzorde batek hautatuko

ditu idazleak eta gomitak eginen. Lanen epeak ere batzorde berak ezarriko ditu. Lan bakoitza gehienez hogeit bat orrialdekoa izango da. Horretarako batzordea, hau izango da: L. Michelena *Iker Sailburua*, J. Haritschelhar, J. San Martin eta E. Knörr.

Lekukoak. Datorren urterako gertu dauden Lekukoen liburuak aipatu dira, diru laguntza lortzen joateko asmoz. Oraikoez beste alde, diru iturri berriak lortu beharra ikusi da.

Dialektologia. J. A. Letamendiak eman du batzorde honen berri. Giza gorputzari buruz egindako itaunketen zerrendak jaso dira alde batetik, eta premiazkoen ikusten diren liburuen eskuratzea erabaki da beste alde. Tresnak erosi eta datorren udaldian egingo da lehen bilketa.

Txostena

Pertsona Izendegiari buruz irakurri du J. M. Satrustegik bere txostena. Legezko egoera ezberdinean egin ziren aurreko argitalpen biak eta, gurasoei eskubide osoa aitortzen dien lege berriaren garaiari plazaratuko da hirugarren hau ere. Hori dela eta aintzin asmo batzu agertu ditu. Oharrak egiteko hilabete biko epea eman zaie euskaltzain guztiei.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI